

gasteizko atlasa. bizitza



geu aldizkariak
jai zoriontsuak
opa dizkizue

geu aldizkaria
Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ
Tfnoa: 945 22 21 53 • geugaste@grn.es



**Zatoz ARRIAGA MEGADENDAko
instalazio berriak ezagutzera eta...
eraman ezazu irudirik onena!**

telebista · dvd · bideoak · home cinema · bideo-
kamerak · argazki digitalen kamerak ·
informatika · bulegotika...

Marka eta preziorik onenak!

IRUDI ETA INFORMATIKA San Anton Plaza 7 · ☎ 945 26 90 33
LIBURU-DENDA ETA PAPER-DENDA San Prudentzio, 7 · ☎ 945 14 45 01
KANPUSA, Apraiz, 1 · Unibertsitate Pab. · ☎ 945 14 16 70



arriaga

BIZITZA

Lerro zuzenean, goitik behera, zooma bailitzan, nire begien norabidean oin bi daude, elkarrekin. Euren azpian, desenfokatuta, burdinezko marra bi antzematen ditut. Indartsu baina aldi berean desgastaturik, urrunean galtzen dira. Begirada altxatzen dut, zoooooom in. Non izango dute amaiera? Bailarak, mendiak eta zelaia zeharkatuko dituzte isilik. Belauniko, aldiz, lerroaren hotzak belarriarekin kontaktuan hotzikara sortzen dit. Istorioak kontaktzen dizkirate. Olatuek dakartzaten kontu anitzen soinuaren oihartzuna entzuten dut orduan lurrean margotutako bidaia iragankor honetan.

Zutunik orain, zeruertzari begira nagoela haize bolada handi batek astintzen nau. Buuu, Buuuuuu!, arnas beroko presaka doan bineta nire ondotik pasatzen da; buruak, begiak, istorioak, mundua igarotzen dira azkar, harrapatu ezinean. Ispilua da, alegia. Ezezagunak, baina aldi berean nirekin komuna dute izatea. Badoa, agurtzen da. Aurrera egin duenean paperak eta harri txikiak dantzan utzi ditu. Non amaituko da? Lehenago edo beranduago geltokia izango du zain. Ordura arte lerroei jarraituko natzaie, zoouooooooooom in. Bistak ikusten ez duen tokiraino.



argazkia: edorta sanz

s u m a r i o a



GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkariako taldeak eginga, bideratua eta kudeatua

Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkariako batzordea:	josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune velez de mendizabal
Argazkiak:	edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:	estitxu breñas glz. de zarate
Testuen orrazketa-zuzenketa-	
osaketak:	estitxu breñas glz. de zarate
Maketa:	patirke sanz eta david alvez
logoa:	io grafix
komikia:	iñigo sarasola
Kolaboratzaileak	
ale honetan:	gorka glz. de zarate, abarrots, gamarrako ostalaritza eskola eta luma aldizkaria
Publizitatea eta Banaketa:	edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila:	edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500
	LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz eginga dago.
Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eroski Aurrerakizko
Kultura Saila



- | | | | |
|-----|--------------------|--------|-----------------|
| 1. | bizitza | 23. | iluntasuna |
| 4. | sarrera. araba | 24-25. | txokoa II |
| | bixotzian | 26. | pobrezia |
| 5. | iritzia: gasteizko | 27. | kontsumismoa |
| | jazzaldia-03. | 28. | moda |
| | balorazioa | 29. | eguraldia |
| 6. | esnatuz... | 30. | fakultate gunea |
| 7. | txokoa I | 31. | txoiten |
| 8. | azoka | 33. | amorrua |
| 9. | poteoa | 34. | aldarrikapenak |
| 10. | "kañoak" | 35. | adierazpen |
| 11. | hedegile kalea | | askatasuna |
| 12. | gaztetxea | 36. | gauetz |
| 13. | inmigrazioa | 37. | ...lokartuz |
| 15. | zarata | 38-40. | jai egitaraua. |
| 16. | zabor-makinak | | txosnak |
| 17. | garbiketa- | 41-42. | debako arte |
| | -makinak | | eskola |
| 18. | kotxeak | 43. | bidaia: tunisia |
| 19. | bizitzaren | 44. | errezeta & |
| | abiadura | | denbora-pasa |
| 20. | baretasuna | 45. | udako liburua & |
| 21. | alaitasuna | | CDa |
| 22. | tristezia | 46. | komikia |

sarrera

Uda aldaketa garaia izan ohi da eta giro berezi eta desberdin hori partekatze asmoz, aurtengoan ere udarako ale berezia kaleratu nahi izan dugu, udako geu aldizkari bat, beroa bezain freskoa, gertua, kritikoa eta gasteiztarra: gasteizko atlasa. Esku artean duzuen, beraz, abuztua eta iraila biltzen dituen ale berezia da, potoloxeagoa, gai bakarra mintzagai duela: gure hiria, Gasteiz. Gasteiz irudiz eta hitzez begiraturik, aztertuta, deskribaturik. Irudiek eta testuek bat egingo dute Gasteizko ikuspegi zein ikuspuntu desberdinak adierazteko xedeaz, hitzez nahiz irudiz.

Gasteizko bazterrak, Gasteizko bizitza eta bizitza bera oro har, Gasteizko larrua eta bihotza... Bizitza. Gasteiz.

Bertakoak garen heinean gure hiriak une batzuetan kezkatzen gaitu, bestetan alaitzen gaitu, tristetzen gaitu, amorratzen gaitu, mugiarazaten gaitu, zirrara zor dakiguke, barre eragin diezaguke, negarra akaso noizbehin, bero eman, hotz, esna gaitzake, lokar...

Bertakoak garelako hiriaren eta finean bizitzaren zainetatik, azaletik, ahotik, muinetik, esentziatik, zerizantetik..., gorputzetik azken batean, pasiatzera jalgi gara, beren alde desberdinak azalarazteko asmoz: hiriaren gogoko txokoak, zarata, hiri gauez, alaitasuna, edertasuna, baretasuna, inmigrazioa, esna, lo, kaleak, amorrua, aldarrikapenak, gizartearen abiadura, azoka, eta abar...

...Irudizko bazterrak, hitzezko bazterrak. Gasteiz. Bizitza.

estitxu breñas glz. de zarate

Araba bixotzian



ARABOTs 03



gorka glz. de zarate,
Berria egunkariko jazzaldia-ren kritikaria

Gasteizko 27. Jazzaldia ASTEBETEKO OASIA, URTE OSOKO BASAMORTUA

Aurtengo Jazzaldia hasi baino lehen esan izan baligute Kepa Junkera trikitilariak eta bi txalapartarik, TX Orekakoe, hain zuzen ere, ekitaldi aipagarriena protagonizatuko zutela, ez genukeen sinetsi ere egingo. Baina, hala izan da, programan iragarrita ere ez ziren artista hauek bete egin zuten urteetan zehar gogoratuko dugun musika saio pozgarriena. Eta, bide batez, erakutsi ziguten gure herrian dauden musikariak utzi egiten zaien baino askoz gehiago esateko gauza direla jazzaren munduaren barnean ere. Batzuei kontrakoa pentsaraztea gustatzen bazaie ere.

Gau zoragarria eskaini ziguten, bada, parte hartu zuten musikari euskaldun bakarrek. Eta hori aipagarria da izarrez beteta izan den jazzaldi batean. Ekitaldi oso ederrak bizi izan ditugu, bai Mendizorroitzeko kiroldegian bai Principal antzokian, Jazzaldiaren zati garrantzitsuen bihurtu zaigun XXI. mendeko

atalekoan, hain zuzen ere.

Kepa Junkerak eta txalapartariak Pat Metheny-rekin batera emandako saioaz gain, Roy Hargrove-en Taldeak eskaini zizkigun une gozoenak, eta baita Diana Krall-ek ere.

Benetan jazzaldi berezia dugu gure hirian, horretan munduko artista hoberenetarikoei parte hartzen dute. Baina, zergatik ez dago gure hirian urtean zehar azpimarratzeko inolako ekitaldirik? Zilegi al da hiri honetako musika klasikoa ez den eskaintza musikal osoa uztailako aste bakarrera mugatzea? Ez ote dugu gehiago merezi hiri honetako biztanleok? Operación Triunfo mugatuta egon behar dugu neguko hilabeteetan?

Jazzaldiak izan duen ikuslegoak, kanpotik etorri ohi den jendea ere kontuan hartuta, ziurtatzen digu oraindik ez garela lerdetasun integralean erori, gure burua sano mantentzen dugula. Kalitatezko

musika badakigula preziatzen. Eta gure gustukoa ez den musika desberdina errespetuz entzuteko gauza garela.

Orduan, zergatik ez ote dugu jazz ematen duen emisorarik entzuteko aukerarik urtean barrena? Zergatik mugatzen da kalitatezko musika aste batera irati-saio guztietan? Zergatik jasan behar ditugu etengabe David Bisbal, Beth, eta halako zikinkerjak?, haurrentzako kaltegarriak izan behar direnak, seguru.

Eta zergatik hemengo kutxa ospetsuenak, aurtengo Jazzaldiaren babesle nagusi bihurtu denak, agure eta atsoak alaitzeko ez ote duen ekartzen New Orleans-eko jazz bandarik, Manolo Escobar ekarri beharrean? Ez ote dute gure zaharrek ere jazz merezi? Ez ote dugu denok musika ona merezi, aste bakar batean zehar izan beharrean, urte osoan barrena?

13 - 19

JUZUO 2003

2003

Euskara baztertua Jazzaldiaren edizio honetako atal batean: eroski-ren sagarra eta Vital Kutxa-ren haizemailea

Disfruta Jazz

Ante tus ojos, ¡la nueva manzana Jazz!
La más firme y crujiente.

Una excelente variedad de fruta,
seleccionada y recolectada en
Nueva Zelanda, y que sólo podrás
encontrar en exclusiva en las fruterías
de Grupo Eroski.

Por sus características externas,
por su jugosidad y delicioso sabor,
y sobre todo, por su perfecto equilibrio
dulce-ácido, estás ante una fruta
insuperable, que los paladares más
exigentes y aficionados a las manzanas
disfrutarán con todo su swing.

Nueva manzana Jazz
Mordiscos de Sabor
(Solamente en Grupo Eroski)

Gasteizko XVII. Jazzaldian banatutako haizemaileak eta sagarren kutxak gatzeleraz baino ez zetozen... Eta euskara? Hainbeste kostatzen al da bertako hizkuntza ofiziala ere baden euskara erabiltzea, bertako euskal hiztunekiko errespetuagatik behintzat?



geu aldizkaria & geu elkarte


esnatuz...



Atzarri, ernatu. Begiek ezezik, belarriek eta eskuek ere irekiak behar dute izan bizitzeko. Zaporeak eta usainak gozatu eta sentitu. Inguruarekin nahastu. Bilatu eta aurkitu. Itzarri. Margotu. Garatu. Hazi.

josune velez de mendizabal

txokoa I



Hedegile kalean, Andre Maria Zuriaren plazatik sartuta, txoko txiki eta polit bat aurkituko duzue eskubiko aldean. San Migel elizaren itzalean, bi etxe zahar-ederren babesean gune zoragarria dago. Ezohiko freskotasunaz eta argitasunaz. Aurrez aurre San Migel elizako atea, harrizko eskailera zabalekin. Lurra ere harrizkoa, denbora iragan izan ez balitz bezalaxe. Mendeen iragaitea geldituta dagoela ematen du, oraindik Erdi Aroko pertsonaiak bertan biziko bailiran. Txoko honetan denborak stop egiten du. Denboraren makina batean sartzea bezala. Isiltasuna, gardentasuna, soiltasuna, eta aldi berean, Gasteizko historia metro koadro apur batzuetan bilduta.

edorta sanz

edurne begiristain

tratu

Ummm, gazta tarta, txorizo usaina eta Maeztuko odolkiak.
"Iepa, zer?"

- "Aupa, egun on!, ohetik jaiki berria".

- "Gu ere duela gutxi altxatu gara eta bueltatxo bat ematea erabaki dugu".

- "Ez zaituztet ikusi".

- "Bai, jende asko dago gaur".

- "Beno, postuak ikusiko ditugu ea zerbait erosten dugun".

- "Gu bestaldera goaz, bueltan ikusiko dugu elkar, fijo".

- "A!, eman goraintziak amari".

- "Bai, zure partetik".

Madalenak, taloak eta zirkulazio-
rako, eztulerako eta barizeetarako
sendabelarrak.

- "Aupa bikote!".

- "Zer moduz, motel?, aspaldiko!".


- "Hemendik, dagoen giroaz
gozatzen".

- "Gaezan aterako?".

- "Seguru asko bai, auzoko jaiak dira
asteburu honetan".

- "Egongo gara, ba".

edorta sanz




xabier errasti

Bigarren eskuko arropa
merkea, aspaldian erosi
nahi nuen kamiseta eta
kotxean jarri nahi ditudan
pegaten postutxoak. Kale
amaieran zarata entzuten da,
zer dago hor? Musika da.
Zenbat jende bildu garen dj-
aren inguruan. Gustura nabil
kalean harat-honat ezagunak
agurtzen, azkenengo kontu-
txoen berri jakiten eta
adiskideekin sagardo fresko
bat edaten. Eskerrak ez
naizen ohean geratu. Askok
gara gaurkoan ere altxatu
garenok, zein gustura.

josune veleaz de mendizabal

lokutorioak



edorta sanz

Lana amaituta etxeruntz nihoala bidean lagun batekin elkartu naiz. Etxean arratsalde guztia eman du eta aspertuta zebilenez kalera irten da haize freskoa hartzera. Berriketan aritu gara minutu batzuez eta ondoren zerbait hartzea erabaki dugu, gustura gaude-eta.

Tabernara sartu eta pika bat eskatu dut. Aise igarotzen da garagardo eta limoiaren zaporea nire eztarritik behera. Bere istorioak kontatzen dizkit lagunak eta arin pasatzen da denbora. Koadrila handi bat gerturatu da barrara. Hortxe dago ikastolako mutil hura, nirekin lan egin zuen neskarekin berbetan. Talde berean antzeman dut hainbestetan kaletik gurutzatzen dudak gazte guapitoe, zenbat urte izango ditu?, hogeï inguru botatzen dizkiot. Agur kamareroari, agur taldeari. Tabernatik atera gara, baina ez dugu asko aurreratu. Atetik gertu udarekin loratzen diren terrazetan nire izena oihukatu dute. Nire neba dago hor eserita. "Ze ondo bizi den oporretan, eh?". Non dago nire laguna?, beste ezagun batekin geratu da hizketan.

Aulkia bilatu dut eta neba eta lagunak ondoan ezarri naiz, behintzat nirekin batera bidaia sozial honetan hasi denak hitz egiten bukatu artean. Zenbat jende dabilen kalean, asteazkena da gaur eta larunbatetan ikusi ohi ditudan aurpegi berak dabilen kale eta kantoietan gora eta behera. Giro polita dago kale osoan barrena.

Ez dago presarik. Beste pote bat eskatu dut, berriketan aritzeak egarria pizten du eta. Batek daki zein ager daitekeen.

josune veleiz de mendizabal

xabier erasti

edertasunerantz



Edertasuna
eta barnea batera
doaz, ene aburuz.
Pertsonengan, hiri,
herri batean... Ezagu-
tzean datza edertasuna.
Kanpo edertasun esteti-
koa ezin da ukatu, baina
hori al da edertasuna edo une
baterako polita baino ez?

Gasteizko "kañoak", hiriaren
muina. Hiri bat ezagutzeko,
maitatzeko edo gorrotatzeko,
sentitzeko, dastatzeko, kritikatzeko,...
bihotzera, muinera joan, osoki ibili
beharra dago. Kanpotik edota bakarrik
atal bat aztertzeak ondorio okerrak
lekarzke. Nik Gasteiz hiria gustuko dut
urte askotan bere barnera bidaiatu
dudalako, mugitzen eta erantzuten
dakien hiria ezagutuz, maiz saldu nahi
izan diguten eta hedatu den zaporerik
gabeko hiriaren ideiaaren aurka. Barne
ederra, hiri, herri batean, pertsonengan.
Eta nik hiri hori, hain juxtu hori,
aldarrikatzen dut, gogoko dut. Eta
beretik edan nahi dut.

estitxu breñas glz. de zarate

edorta sanz

AÑORBIN KANTOIA

almendra goxoa



Hankek
gidatzen
naute mantso-mantso, eta gora
eta behera batzuen ostean, ia
almendra goxo erdia ibili dudala,
izkinan biratu dut.

Ziiuummm! Zitzu bizian nire
aurretik kantoia gurutzatu duen katuak
izugarritzko sustoa eman dit (lokartuta
noan seinale). Nire arnasketa segundu
batean biziki bizkortu da, kanto
hasierakoa baino maila bat gorago.

Harrien isiltasuna zapalduz kalean
goiz galtzen naiz nire pentsamenduetan.
Zaldi haragiko harakinak bizpahiru
bezero ditu salmahaiaren bestaldean.
Ganibet handi horrekin antzinako
lanbidea zeneko oroitzapena dakarkit
gogora. Gora altxatzen dut bista, loreek
balkoi txikiak apaintzen dituzte. Egurra
eta harria, kale, auzo, herri zenaren
sena. Hodeiak, goian baino gorago, dira
denborak aurrera egiten duen ispilu.

Igeltseroak etxe bat berizten ari dira,
zein koloretakoa margotuko dute?
Beheko aldean ez dago ezer, horman
zulo handia besterik ez, eta hotza
ateratzen da hortik. Tennis partida batean
bainengoan, komikiak daude orain
ikusgai.

Andere adintsuek kalean gora egiten
dute erosketetarako orgarekin. Nire
amonak herrian erabili ohi zuen bezalako
amantalarakin paseatzen dira, euren
gogapenetan murgilduta. Lur azpiko
mugimendua hautematen da bake
panorama honetan; ni barruan nago,
barrutik begira ari natzaio kale ezagun
honi. Aske sentitzen naiz, Erdi Aroko
hiriguneko, Alde Zaharreko, historiaren
lekuko, Broadway-eko musikaletan
bezala glamourrez janzten nauen
sentsazioak biltzen nau orduan. Atzera
begiratzen dut, ez dator inor. Aurrean,
ezkutuan, San Migeleko pasabidea isilik.
Besoak zabaltzen ditut, amasa sakon hartu
eta... San Roke kantoitik behera abiatzen
naiz. Mendetako erlojuaren kanpai
hotsak xarma gerarazi egin du. To,
berriro ere berandu noa lanera!!

Bueltarako utziko dut bizitzea.

josune velez de mendizabal

edorta sanz

ongi etorria zure etxera

Ezjakintasunaren bermeak gure etxea miran jarri du. Nire gaztetasunaren oroitzapenak Karinaren kutxatik noiztenka ateratzen ditudanean bat edo beste Gaztetxean izan zela konturatzen naiz. Amekin topo egin genuen guateke horretan bezala, edo Su Ta Gar entzunez lepoa aurrera eta atzera matxakatu genuen gau hura. Jai kubatarra bertan antolatu zenean ere ederki dantzatu genuen mojitoa eskuan erraz agortzen zitzaigula. Zer esanik ez Tapia eta Leturia edo Kontraio taldeekin egin ohi genituen megakalejiren inguruan. Negu gorriak, Doctor Deseo... Baina giro ona, kontzertuez gain, antzezlan ez, hitzaldiez

eta liburuez ere hornitu da gure etxean. Urteek aurrera egin ahala, gu hazi garen neurrian, gure etxeak ere aldaketak bizi izan ditu, hobekuntza ugari izan direlarik. Hormak sendotu dira eta bizilagunen lagun egin gara.

Udan kaleko beroaz gure etxera sartzen den edonork atsedean har dezake bertan, baita neguko hotzaz babestu sutondoan. Denek atsegin dute gure etxea. Xarma berezikoa. Oroitzapen polit eta etorkizun oparoko historia.

Ezjakintasunaren bermeak gure etxea miran jarri du. Pasa eta etxea erakutsiko dizut, ongi etorria baitzara ZURE ETXEAN.

josune veleaz de
mendizabal

ortzadarra

Kolorea da nagusi gaur egun gure karriketan. Mendebaldeko eta ekialdeko putza nabaria da, baita hegoaldeko haizea ere nagusiki.


Udan ez dut nire azala zuri ikusi nahi, eguzkia hartzen dut melanina bizituz. Klean, berriz, azal iluneko gizakiak etorkintzat erlazionatzen ditu nire subkontzienteak. Stop eta rewind. Zeeerrrrrr?

Èz gure ibilkerak, ez gure arropak, ez gure orrazkerak, baizik eta azalaren koloreak, gustuaren arabera aldatu ezin daitekeen gauza bakarrak agerian uzten gaitu goazen edonora joanda ere. Ni turista izan naiteke munduko edozein tokitara noala ere, bisa zuria baitaukat. Zurea zailagoa da ezkutatzen. Zertaz ari gara? "Matxista, lapurra, arriskutsua, zikina, bortxatzailea, liskartsua, lotsagabea, estremista, inposatzailea, (...)".

Nora zoaz oporretan? Zein herrialde bisitatuko duzu aurten? Hegazkinez edo trenez joango zara? A, akaso hamar egun egon beharrean hilabete osoa geratuko zarela guztiz erlajatzeko? Marokora, Tunisiara, Errumaniara, Istanbulera, Egiptora... Ez al ginen haien beldur??

Stop, rewind and rub out.

josune velez de mendizabal



edorta sanz

INMIGRAZIOA

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege alea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

eguzkitarako
nobedade



eguzkitarako nobedade
guztia MendiaOptikan,
... zatoz ikustera

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Pza. Virgen Blanca
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailez

zarata & hautsa

Hiri guztia hankaz gora. Errepideak altxatuta, hautsa edonon, hodi erraldoiak espaloietan paratuta, makinen eta induskailuen hotsak belarriak zulatuz... Zarata, egungo Gasteizko ezaugarria (baita hautsa ere!). Zarata esnatzen garen unetik, lo hartu bitartean. Obren zarata, kotxeen zarata, ... zarata, ... zarata... Sarri ez dago egoterik!!

Isiltasun apur bat erdiesterik bai?

Maiz lasaitasuna hiritik kanpo lortzen dugu, naturarekin bat egiten dugunean. Orduantxe topatuko dugu geure barruak eskatzen duen baretasun hori... Zein gozagarria den txorien eta haizearen hotsa baino ez entzutea...

Zaratarik ez entzutea... Belarriei atseden apur bat ematea. Bizitza erlojuaren kontrako maratoni bilakatu den honetan, zarata gure bizitzaren zati bihurtu den honetan...

...ssssssshhhhhhh!!; isilik, mesedez, noizbehin behinik behin.

edurne begiristain

zabor-makinak



BOLSA DE BASURA
bien atada

ZABOR-POLTS
angiti lotuta

Zaborra biltzeko sistema pneumatikoa du izena Gasteizko Udalak gure hiriko Erdi Aroko hirigunean ezarri duen mekanismoak. Hautsak harrotu zituen zabor biltzeko sistema horrek, baina azkenean, auzokideen iritzia kontra egin zen. Eztabaidagarria da zabor makina hauek beste sistema batzuk baino garbi eta erakingorragoak diren ala ez, baina zalantzarik ez dago fisikoki, bederen, min egiten diotela Erdi Aroko hiriguneko parajeari. Historia, artea, misterioa, harria, egurra mendeak... Alde Zaharreko bizitza guztia apurte dute zabor-makinek.

Jada ez dago argazkirik ateratzerik. Apurte egin da betirako Gasteizko kale zaharrenen xarma. XXI. mendeko espaziuntziak paratu dituzte historiaren bihotzean, min handia eginez. Garapen, modernizazioa, teknologia eta garbitasun jasangarriaren izenean gure izaera, nortasuna, eta historiari ostikada galanta eman diote zabor makinak jartzearekin. Zabor-makinak bai, baina ingurua errespetatuz, faborez.

edurne begiristain

edorta sanz



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUJA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe • 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER

"Zetazko eta kotoitzko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

garbiketa-makinen eraso



Gasteiz, urteko edozein egunetan, arratsaldeko 4.30ak aldera, kaleak jendez gainezka. Bat-batean, di-da, eskuiladun garbiketa-makina motorizatu horietako bat zitzu bizian gerturatzen da, baina ez bakarrik gerturatu, baita inguratu ere. Makina erasotzaile horren mugimendu aztoratuak batere ulertu barik, inguratze horretatik ihes egiten, ateratzen, saiatzen naiz, baina ez ni bakarrik, nirekin batera espalo horretatik doan kristo guztia berdin dabilela jabetzen naiz; haatik, makinak ez du abiadura gutxitzen, are gehiago, sekulako irristapenak egiten ditu. Norbera hortik ihes egiten ahalegintzen da...

Hurrengo egunean bide berbera hartuta, konturatzen zara ez dela egun zehatz bateko kontua, egunerokoa baizik. Eskuiladun makinen ordua dela ikusten duzu...

...Gasteizko azken urteotako ohiko irudia, hiriko postal bilaka daitekeena... Pasiatzen, erosketak egiten edota lanerako bidean zoazela, hor izango da zure aurretik, atzetik, ezkerretik eta eskubitik makina erasoan, eta oraindik hegan egiten ez duelako, bestela ere gainean izan zenezake une oro zu nazkatzen. Ez al dago beste ordurik hiriko kaleak 'txukun' (gainera, kaleak jendez gainezka daudenean ez dira ondo garbitzen...) mantentzeko? Edo helburua garbitu bainoago jendeak makinak kaleetan ikus ditzan izango ote da?

estitxu breñas glz. de zarate



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

trafikoa

Ba al zenekien Euskal Autonomia Elkarteko ibilgailuen kopuruak %2 egin duela gora azken urteotan? Motordun ibilgailuen %78,3 turismoak direla? EAEko biztanleen erdiak ia gidatzeko txartelen bat duela eta emakumezkoak gidarien herena direla?

Egunean 600.000 inguru lagunek erabiltzen du ibilgailua leku batetik bestera joateko, dela ikastera, dela lanera... Erdiek ibilgailu arinak baliatzen dituzte.

Joan den urtean 423.812 bizikleta fabrikatu ziren

Espainian; haietatik 414.193 Euskal Autonomia Erkidegoan egin ziren. Gasteiz da Espainiar Estatuan hiri barruan bizikleta-bideen sarea duen hiri bakarra. Gasteizen 120.000 bat bizikleta daude.

Erkidegoko hiriburuetan hiri-garraioaren zerbitzua darabiltenen kopuruak ondokoak dira, urtean: Bilbon 30 milioi, Donostian 26 milioi eta Gasteizen 10 milioi. Taxiei dagokienez, Araban 229 daude.

Ibilgailu kopuru horiekin ez da harritzekoa hirian horrenbeste trafiko arazo egotea, ezta?

edurne begiristain



gizartearen abiadura



edorta sanz

Ilea bustita daukat oraindik, ez dut lehortzeko astirik izan. Aliziaren ipuinaren belarri handiko *oryctolagus cuniculus* hiztunak "berandu da, berandu da", errepikatzen dit irudimenean. Niretzat, gaur ere, berandu da. Errepidea ahalbait arinen gurutzatu nahi dut. Suizida ero bat dirudit, nire oinek espaloitik salto egin eta dagoeneko asfalto beltzaren oihanean sartu naiz. Auto batek bozina jo du. Ene, gidari hauek ez daukate pazientziarik!


Dardara sentitu dut poltsoan. Mobila joka ari da. Eskua sartu eta giltzak baztertu ditut, ondoren kartera, klinexak ere igarri ditut zeregin honetan. Non dago traste madarikatua? Aurrera jarraitzen dut, nire pausoak bizkortuz eta segapotoa ez da isiltzen. Gelditzea deliberatu dut, azkarrago egingo dut horrela. Poltsotik kartera, klinexak eta giltzak atera eta orduan hor hondoan gelditzen den gauza bakarra ikusi dut. Bazaitut. "Bai, bai, nor da, esan?". (Joder, eskegi dute!). San Bizenteko dorreko kanpaiak berandu, oso berandu noala gogorazten dit. Dutxatu berria egon arren, izerdia nabaritzen hasia naiz nire besapeetan. Bost minutu barru helduko naizela kalkulatu dut.

Daaa, ddddaaaa, raaaa. Gaizki hasi dugu gaur eguna. Teknologia berriak eta asmakuntza estresagarriak. Giltzak, kartera, klinexak... aiiii!!!!!! "Bai, bai, nor da?". *Pi, pi, pi, pi...* (berriro ere berandu hartu dut). Akabo, deskonektatuko dut eta listo. Nire ondotik usain fresko eta goxoa utzi duen neskaila bat pasa da, ez da nire kasua, arnasestuka nabil. Hau da hau *springa*.

Azkenean!!!, heldu naiz eta oraindik ez da hasi, aupa!! Non egongo dira gainontzekoak??? Bat, bost, zazpi, hamar, ze arraroa! Mobila piztuko dut lankideari deitzeko. Piztu bezain laster joka hasi da... traste nekazina!! "Bai, bai?" (...) "Bale, bale, ...ondo..., beraz biharko atzeratu da..., ...eskerrik asko abisatzeagatik". Deika aritu direla baina ez dudala hartu eta gero seinalerik ez zuela ematen. Bihar izango dela. Errepika-Endika. Bihotzetako erregina banintz burua moztuko nieke. Baina lasterketako untxia izaki konformatu beharko, horrela idatzi baininduen Lewis Carrolllek.

josune veleaz de mendizabal

baretasuna



"Erabateko **baretasuna** zure begien itsasoan, irribarre hautsi batek zauritu zizun aingura eta malekoiko farolak alperrik ari dira zure ibilkeraren bila, besteen gaua argitzen dute soilik...".

MIREN ARANBURU

(MEMORIA diskotik)

edurne begiristain

"Kostata baina azkenian, itsasoa dago **bare**
Bizirik mundu berez izorratu honetan, aske eta libre
Garaipen egunik ospatu barik, bejon daigula, ez
naiz oroitzen
Noiz izan zen azken aberri eguna".

MIKEL URDANGARIN

("Ez naiz oroitzen" kanta, "Heldu artean" diskotik)

"Ura **bare** dago emengo aldean.
Treñeruak zuzen dijoaz elburura.
Donostiarrek treñeru erdia eramaten
oriotarrerri ta tarte ori ezin iñolaz ez
aunditu, ez gutxitu".

AGUSTIN ANABITARTE

(DONOSTIA nobelatik)

edorta sanz

SAN MARTINGO PARKEA

vitales
**BEIRATE
ESTUDIOA**
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia
**Matrikula zaitetz !!**
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

**BAR
KLAKÉ**
**KUTXA, 2
TFNO.
143883**
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
**zurbeltz**
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**EAJ
PNV**
Hitza, bihotzaren giltza:
**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

euskal irria

Ni gero eta hiri euskaldunago batean bizi naizela ikusteak alaitzen nau, kaletik noala eta bertakook euskaraz mintzatzen entzuten ditudanean, gazteak, umeak, helduak, txikitatik ikastolan ikasitakoak, euskaltegietako ikasleak... euskaraz mintzo direla. Horrek pozten nau ni. Euskararen ezagutza eta erabilera gure hirian gora doala ikusteak... Aldi berean, *egunkariaren* itxieraren aurkako oihuak Gasteizko karriketan barrena zabaldtu zirenean, edota orain *berria* kalean dugula jada, norbaitek *berria* irakurtzen diharduela ikusteak ere alaitasuna dakarkit ene baitara...
...bidegabekeriaren aurkako eta euskararen aldeko keinu garbia eta zuzena! Euskal Herriaren boza, euskal irria, une gogorak pairatzen ari da: agur *egunkaria*, ongi etorri *berria*. Zure etorrerak alaitzen nau. Jendeak desiratu eta irakurtzen zaitu. Pozik nago. Eta batera goibel: nora gara matzate, ba?

Erne, euskal irriaren **Urritzea** dator, **Trabarik traba**, **Seko**, **I**deiak zapatuz...

...EUTSI!

estitxu breñas glz. de zarate



berria

EGIN-ENAUZIA

MERTXE AIZPURUA

«Ez dugu zorra ordaintzeko asmorik; ez dagokigu gutxi. »

ANIMAZIO ZINEMA

'Alhambra'ko giltza

Juana Benera gure martxoaren 10eko filmaren aurkezpena du. Horren berri ematen du 32.

www.berria.info

4
ORRIALKA

KORSIKA

Erreferendumen zain

Uhartea departamendu bakarrean biltzearen alde agertu dira korsikarrek. 29.000.000 KORSIKARREN KONTAKIA

BERRIAK 16.000 akziodun eta 2.670.330 euro lortu ditu jada

ERDIBIDEKO HELBURUA. Ekainaren amaiera bitartean, euskarazko egunkariak behar dituen 5 milioi euroetatik erdia lortzea zen helburua. JOANMARI LARRARTE: «Kalitate jauziak ematea ahalbidetuko ligituko boza 11 milioi euro lortzeak»

BERNARDI BELLOKI
«Bilakaeraren arabera, ziri edo zati egingo dut; dena edo ezet ez»

JOANMARI LARRARTE
«Kalitate jauziak ematea ahalbidetuko ligituko boza 11 milioi euro lortzeak»

GAURBERRIAN

GAUR 64 ORRIALDE

GAUR 64 ORRIALDE

GAUR 64 ORRIALDE

GAUR 64 ORRIALDE

GAUR 64 ORRIALDE

Su-etena kolokan, Israelek ekintzaile bat hil ostean



edorta sanz

tristezia

Inork ez zizuen esan mundu honetan bihotz gabeko pertsonak badirela, eta horietako baten batekin topo egingo zenutela. Ez da bidezkoa. Zuen bihotza handia da, min egiteko ahalmenik ez duzue, baina ez zaituztete maite... Triste zaudete. Ez duzue malkorik botatzen, baina barrutik negar egiten duzue. Zuen begietara begiratzea baino ez da behar horretaz jabetzeko.

Triste zaudete, ez baituzue ulertzen zer dela eta ez zaituzteten maite. Ez baituzue ulertzen zergatik ez zaituzteten ongi zaindu nahi, ez dizueten janaririk eta laztanik eman

nahi. Begietan ikusten zaizue barrutik duzen pena. Begi lausotuak dituzue. Baina hala eta guztiz ere, pozik jartzen zarete txakurtegiko zaindaria atea ireki eta janaria ematera joaten zaizkizuenean. Horren gutxirekin konformatzen zarete! Ez duzue askoz gehiago jasotzen, baina zuek ez zarete kexatzen. Sekula ez duzue ezer berezirik eskatu, baina eman, ordea, dena ematen duzue, ezeren truke, gainera. Jaiotzen zaretenetik hil artean poztasuna eta maitasuna eskaintzen duzue... Triste zaudete. Ez duzue malkorik botatzen, baina barrutik negar egiten duzue.

edurne bigiristain



edorta sanz

iluntasuna

Argi izpiek lekuri aurkitzen ez duten txokoak. Hezetasuna, hotza, iluntasuna. Beldurra ere izaten dugu hainbatetan, belztasun horren atzean zer ezkutatzen ote den ikusterik ez dugunean. Bestetan, ordea, desiratzen zaitugu, begiak itxi eta ametsetan murgiltzeko lagungarri baitzara. Beste batzuetan ere kalean topatzen zaitugu, espero ez zaitugunean, kale estu, umel eta txiki batean...

...orduan iluntasunaren misterioak gure azala ferekatzen du eta gustura egoten gara. Etxera askotan laguntzen gaituzu, gaueko ordu txikietan, mundu guztia ohean dagoenean, eta gu iluntasunaren handitasunaz gozatzen garenean. Bakarrik aurkitzen zaitugu gehienetan, ilargia eta izarrak lagun, eguzkia noiz agertu zain, errelebua hartu eta planetako bestaldeari bisita egiteko.

edurne begiristain

edorta sanz

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

Daivez

argitarazleak

maketazioa

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa: 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

diseinua




**LIZARRALDE
SOINVA**
TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

txokoa II



edorta sanz



lupa

Tontorrera igo naiz. Mendiak, hodeiak eta zerua nire baitan izan nahian. Baditut. Haize freskoak nire ilea mugitzen du.

Zurrumurruka, xuabe, kamiseta urdin baten joan-etorriak nire begirada pixelatu du, koadro bakoitzaren atzean istorio bat agerian utziz.

Nire atzetik gizon zahar bat pasa da, makilaren hotsa entzun dut. Tristezia aurpegia dauka... akaso zimurren itzala besterik ez da? Goiko leihatilara biratu naiz. Segituan nire aitona-amonekin gogoratu naiz. Ondoko koadroetara begira, *travelling*-a: familia, adiskideak, atzo izkina hartan ikusitako txiroa, dokumentalean agertu tibetarra, iazko oporretan Lisboan turisten artean ortozik zebiltzan umeak, kaleko musikariak... Begi ugari dakusat. Kristalaren isladan nire aurpegia sumatu dut, erdiko hutsunean. Kolorez, sentsazioz eta abiapuntu desberdinez gauzatutako ibilbidez osaturiko margoari begira ari natzaio. Leiho askotako balkoia.

josune velez de mendizabal



edorta sanz

harriaren berotasuna

Egun hauetan Gasteizko bazterretan txiza usaina nagusi bada ere, Matxete (Aihotz) plazak bere dorotezia zaintzen du. Argizko tinteaz eta kolore ezberdinez jantzirik goitik edo behetik eginiko erretratu zoragarria da.

Eguzkiak jotzen du gogor nire burua, eskailera amaiezin bihurtzen zaizkit orduan eta eztarria basamortua dut. Atzoko/gaurko gaua/eguna sekulakoa izan da. Atzo edo gaur, duela ordu batzuk seguru behintzat, iluntasunak laztantzen ninduen plaza honetan bertan dantzan ari ginela. Garagardoaren freskotasan asetzen zuen gure gorputz-izerdia. Irribarreak. Iepa, bestaldera!.

Ene, hau da hau 12 ordu zutik egoteak erantsi didan nekea. Orain, beroak itota, hortxe antzematen dut nik bezala lo egin ez duen agertokia. Bizirik. Bertsolariak taularatzeko zain jendeak egurrezko aulkiak azkar harrapatzen ditu. Sagardotan egositako txorixoaren usainak kasik zorabiatzen nau. Nire aurpegia eta piurak ez daukate parekorik; nabaritzen dut jendearen begiradetan. Zurrumbiloan galtzen naiz, eta aldapa gora agertzen naiz berriro ere.

Inoiz ere agertokira igo naiz. Baina ez goizez, ezta gauzez ere, baizik eta arratsalde. Atsedetik gabeko Aihotz plaza zaintzen duen eszenatokiak goian izan nau txistu eta dultzainaren erritmo herrikoietara behin baino gehiagotan. Urduri izan arren, aurrera begiratu eta plazaren beroak inguratu nau.

Ai!! (Buelta eman dut). "Barkatu" esan dut zuzenean (senezko erreakzioan). (Zelako hostia eman diodan/didan gizon horri/ horrek). Lo noa.

Abra cadabra we see fuu, i can fly and so can you! Ohera heldu nahi dut lehenbailehen. (magia??). Ordu batzuen buruan zeharkatuko zaitut berriro, zu esna egongo zara eta. Zapaltzen ditudan harriek horrela esan baitidate.

josune velez de mendizabal

pobrezia

xabier errasti



Bizitzaren alderik ilunena bizitzea egokitu zaizue. Kale gorria da zuen izena, eta miseria abizena. Bizitzak gaizki tratatu zaituzte, gupidagabe, poztasunaren ate guztiak muturren aurrean itxi dizkizuite. Zorte txarra izan duzue, eta txiro izatea egokitu. Txanpon bakar batzuk eskuratzen dituzue egunean, eta egun guztia ematen duzue txanpon apur horiek eskatzen. Klean eserita, hotz ala bero egin, astelehena ala igandea izan. Jende zoriontsua igarotzen da zuen begien aurretik, eta haiek bezala bizitzea desiratzen duzue. Besterik ez. Kapitalismoaren bi aldeak dira, batzuk aberastuak eta beste batzuk pobretuak. Batzuek, txaleta, kotxea eta luxua eta beste batzuek, gosea, miseria eta kale gorria. Gizarte justuago batean biziko bagina, aberastasuna denon artean banatuko balitz, zuen izena ez litzateke kale gorria, eta zuen abizena poztasuna litzateke.

edurne begiristain

bizitza kalitatearen aitzakiaz

Ze mezu zabaltzen ari da egungo sistema bizitza- kalitatearen aitzakiaz? Benetan jasotzen al da gure burua, gure ingurua eta ingurumena zaintzeko mezua? Elkartasuna, errespetua, berdintasuna, askatasuna, duintasuna... non zaudete? Ez zaituztegu ikusten, txoko eta memento alternatibo gutxi batzuetan baino ez! Bizitza kalitatearen aitzakiaz nora ari da jotzen egungo gizartea? Kotxerik onena, etxerik handiena, erosi&erosi&erosi, "ni zu baino gehiago naiz", "ni zure aurretik nago"... Hori al da bizitza kalitatea? Hori benetakoa bizitza


kalitatea ekarriko luketen baloreak estaltzen dituen iruzurra baizik ez da.

Baina jakina, horrek ez dakar \$rik, ez dakar potenterik.

Pertsonen gogoia soilki xede material horietan zeharo murgilduta egon dadin, bestelako hausnarketarik egitea ekiditzeko asmoaz, jende globalizatua eta ez desberdinaren bila, kritikarik egingo ez duen jendea, ezertarako mugituko ez den jendea, plastilinazko jende moldagarria...

...bizitza kalitatearen aitzakiaz.

estitxu breñas glz. de zarate



toronto lapiko lapiko toronto

edorta sanz

Telebista itzali dut, lotsagarria da. Abduzitura gelditzen ari nintzen Beckham-en praka bakero apurtuei begira. **Zap.** Honetan *Antoñita fantasiosoaren* gala-soineko gustu ezakoa nork egin ahal izan duen pentsatzen jarri naiz. **Zip.** Bere orrazkerari begiratzuz gero gizon hori ileapantzaile denik ez nuke sekula esango. **Ing.** Modaz ari gara.

Armairua ireki eta gaur horrelako egun tontoa daukadala jakin dut berehala: ez dakit zer jantzi. Ez nago gustura gona honekin eta aurreko astean erosi kamiseta berriak nire gelan ez dirudi dendan zirudien bezain polita. Ilea nola daukadan ere ez zait gustatzen. Aldaketa behar dut.

Mementoiz praka elastikoekin atera naiz kalera. Ispiluaren aurrean ezezik, erosoak baitira. 30 gradu daude baina jertsea ipurdian. Erakusleihoan dagoen maniki zuriak jantzen dituen takoidun takoiekin imajinatu dut nire burua. Barrura noa. Zelako alkondara moderno! Ez dago gaizki eta nire neurrikoa da, ze originala. Erosi dut. Alkondora etxean aspaldian ahaztuta ditudan piratekin konbinatu dut. Orain bai gustura noala.

Ataritik irten eta berrehun metro ez ditut ibili non nire alkondara berdina eramaten duen neskatila panpox batekin gurutzatu naizen. Elkarri begiratu diogu. Zenbateko probabilitatea daukat egingo dudan ibilbidean beste alkondora berdinarekin topatzeko? Hain azkar estreinatu izan ez banu aukera izango nuke arropa originalago baten trukean aldatzeko.

"Erregea biluzik dago eta inork ez dio ezer esan", dio kantak.


josune velez de mendizabal



eguraldia

Benidorm? Torrevieja? Sevilla? Almeria? Ez, Gasteiz! Bero galanta uda hasierak ekarritakoa, ezta? Badakizue, hemen ez dago erdiko biderik: hotz handia ala sargoria, txuria ala beltza. Halakoxea da gure hiria. Zer demontre! Denetarik egon behar du eta! Zer egin daiteke 40 gradurekin? Aukerak, honakoak, esaterako: urtegira, piszinara edo hondartzara joan eta bainu freskoa hartu; mendira txangoa egin eta pagadi baten azpian etzan, ur kantinplora alboan izanda. Nork bere aukera egiten du bero egiten duenean, baina denok, ezinbestean izerditan blai egoten gara. Eguraldia, hamaika buruhauste ematen dizkigun gaia. Bero egiten duenean freskoa nahiago, eta hotz egiten duenean uda noiz helduko zain... Guk ere, eguraldiak bezalaxe, ez dugu erdibiderik: zuria ala beltza, baina bata dagoenean bestean pentsatzen.

edurne begiristain




unibertsitate giroa

Apunteak, liburu mardulak, post-it-ak, azterketak, irakasgai astunak, kafetegiko solasaldiak... denetarik dugu ikasle garaian. Aro gogorra da ikaslearena, baita meritu handikoa ere. Ezin uka garai horretan ongi pasatzeko beta ere izaten dela, eta batzuentzat ikasle garaia izaten da hoberena, batik bat unibertsitate garaia. Gasteizen aski ezagunak dira unibertsitarioen ostegunak: Alde Zaharra

ikaslez lepo egoten da, Euskal Herri guztitik etorritakoekin. Unibertsitate Campusean ere girotxoa egon ohi da eta ikasleak campuseko zelaietan etzanda, eserita, atsedean hartzen, berbetan, ligatzen, apunteei azken birpasa ematen... Gasteizko ezaugarri bilakatu da.

Denok dugu ikasle garaietako oroitzapenik, eta ziur asko denok nostalgia apur batekin gogoratzen ditugula garai haiek.

edurne begiristain



itxoiten



Tik-tak, tik-tak, tik-tak... Denbora aurrera doa, eta zu agertu gabe. 20.10, eta zu agertu gabe. Zeozer gertatuko ote zitzazun? Zer dela eta berandutzen ari zara? Ustekaberen bat? Azken orduan lana pilatu ote zaizu? Akaso norbaitekin topo egin duzu kalean eta hizketan zaude?... Tik-tak, tik-tak, tik-tak... 20.20 jada, eta ni hemen, zure zain. Normalean ez zara horrenbeste berandutu ohi..., oso

puntuala izaten zara. Beno, gogoratzen dut behin ia hiru ordu laurden egon nintzela zure zain! Egun hartan gogotik egiten zuen euria eta blai eginda geratu nintzen. Kalean utzi ninduzun, zuhaitz hartan lotuta, hotzak jota... Askok kostatzen al zitzazun zurekin eramatea eta toki lehor eta goxo batean sartzea? Gero badakizu... erreuma, atal herdoilduak... Eta hemendik urtebetera zaharregi ikusiko eta utziko nauzu...

Tik-tak, tik-tak, tik-tak... 20.30! Nazkatuta nago! Etxera nire kabuz joan nahi nuke, baina ezin! Txakur bat baino fidelagoa naiz ni... baina txakurrek baino laztan gutxiago izaten ditut. ...Tik-tak, tik-tak, tik-tak,... 20.45. Hara! Bazatoz! Eskerrak! Bazen garaia! Ea ba, jartzazu zure ipurditxoan nire gainean eta goazen! Eta kontuz espaloiekin, mina hartzen baitut azkar jaisten dituzunean! Adinak ez du barkatzen, badakizu.

edurne begiristain

>GEU
ndako alea

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago pin-
txorik"
Elizalde, 2/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoan
hilabetekaria

12 ale 36€
urtean 30€



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____ P.K: _____

HERRIA: _____ LURRALDEA: _____

TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____

POSTA E: _____

Ordainketa mota:
☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 beheka. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

amorrua



Justiziarik ez, oraindik. Martxoak 3 lazarri hartan, Gasteizen 1976an, norbaitek Poliziak eraildako Pedro Martinez Ocio langilearen gorpuak utzitako odola baliatu zuen historiako pintaketarik hunkigarrienetako bat egiteko: *Justicia*. Hitz bakarra, baina nahikoa. Hogeita zazpi urteren buruan, ordea, ezin esan margogileak helburua bete duenik.

Manuel Fraga Iribarne gaur egungo Galiziako Xuntako buru eta garai hartako Espainiako Gobernazio ministroak adierazi zuen 1976ko martxoaren 3koa ez zela izan Poliziaren "gehiegizko jarduera".

Espainiako Poliziak bost pertsona erail zituen -Pedro Maria Martinez Ocio (27 urte), Francisco Aznar (17 urte), Romualdo Barroso, Bienvenido Perea (30 urte) eta Jose Garcia Castillo (32 urte)-, eta ehun inguru zauritu, horietako 20 larri. Baina hura ez ei zen gehiegizkoa izan...

...Odolez margotutako beste horma bat behar al da halako gertaerak sarraski bat izan zirela onartzeko?

edurne begiristain



(Raimundo) Olabide

(44.orr.)

denbora-pasaren soluzioa

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3


☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

baretasunaren oihua

Sargori da eguna. Nekeak burmuina urtzen dit. Sweepssss. Terrazara gerturatu naiz. Ez dabil inor kalean eta aparkatzeko lekua soberan dago. Ur azpian hobe jasaten da beroa. Isiltasuna.

Eguzkiak besoak erretzen dizkit, eta burura igotako odolak ia zorabiatu nau. Haize freskorik ez. Baretasuna. Ez anbulantziaren soinu karrankaririk, ezta polizia kotxerik ere bistan. Hiria lo dago.



Burua altxatu dut. Baso bat ur edan eta bizilagunaren terrazara begiratutakoan "Gerrarik ez" dioen bandera irakurri dut. Orduan pareko eraikineko izara txurietan eskaera ugariri erreparatu diet. Leiho txiki horretan, "Euskal Presoak Euskal Herrira" dio. Gure etxe pareko horma zurian graffitiak dira, baita deialdi desberdinetarako gonbitea luzatzen duten kartel zahar eta berriak ere. Errepidera begiratu dut berriro. Pertsona bat! Urdin biziko kamisetak nire arreta bereganatu du. Urrutitik irakurri ez dezakedan horrek tintatzen du horiz oihala... Zorabioa berriro ere.

Beroak nago. Ur apur bat gehiago. Itzalean etzango naiz, nire pisua ere ez dut aguantatzen bero ikaragarri honekin. Astuna sentitzen naiz isiltasuna nagusi den arratsalde honetan. Halere, begiek zer esan franko dagoela kontatu didate. Beroak jota badagoen arren hiria ez dago lo. Haize ezak esnatzen du-eta.


josune velez de mendizabal

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

azkarprint
Inprimata / Inprimategia
• INPRIMATEGIA •
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourmier, 23
Tfno: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

adierazpen askatasuna



egunkari batek munduari
begiratzeko leiho bat
eskaintzen du eta
hamaika leiho daude.
Bat ixten dutenean
denok gara kaltetuak

Adierazpen askatasunerako garai txarrak dira hauek, aspaldi galdu baitzuen Euskal Herriak adierazteko askatasuna. Herri honetan egunkariak, iratiak, aldizkariak... ixten dira, inpunitate osoz, gainera. Aurrena Egin egunkaria izan zen (orain dela 5 urte), eta hortik aurrera sokak ez du etenik izan: Ardi Beltza eta Euskaldunon Egunkaria. Itxiak izan dira guztiak, ez ordea isilduak. Kasu guztietan, Euskal Herriko emakume eta gizonen ahalegin eta indarrarekin beste komunikabide batzuk kalera ateratzea erdietsi da. Mina, ordea, egina dago. Mina euskal komunikabideei, euskarari, euskal kulturari, euskal nortasunari, mina finean adierazpen askatasunari. Eta adierazpen askatasuna ukatua duen herri bat ezin daiteke herri libreza izan. Ahoa estalita ez dago libre izaterik. Ideia guztiak adierazteko askatasunik ez bada, demokrazia hitzak ez du zentzurik, adierazpen askatasuna demokraziaren zutabea baita.

berriak zabaldu, garatuz.

edurne begiristain

bar • restaurante •
albeniz
Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EL
BAR
Kutxi
e g u n e k o

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatuak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa
SEX
PITILIN
GORRI
Sexua
euskaraz
bizi
GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA
OIARTZUN

gauaren xarma

Egunean zehar gurutzaturiko kaleak soinekoz aldatzen dira orduak aurrera joan ahala. Beltza da gustukoena. Izarren *dir-dirak* zenbaitetan lentexuelaz apaintzen ditu, eguzkiaren azken errainuek, aldiz, urrez tintatu nahiago badute ere. Bakardadeak estaltzen du hiria.

Usain berezia ere janzen du gauak. Soilik argi gutxi batzuen zarata urrunak gogorarazten dizu lekuko zarela hiriaren impassean. Pausoak moteltzen ditut. Bira oso bat eman eta botin

puntadunak izan ezezik, aterki magikoa ere izan nahiko nuke memento horretan. Teilatuz teilatuz saltoka. Gauaren zaporea dastatuz, presarik gabe, beldurrik gabe. Zapata gorriak hiru bider astinduz ere hiriaren beste puntan agertuko nintzateke. Ene, gaua argitzen duten poxpoluz beterik dugu Gasteiz. Hiriaren burnizko bide bertikal luzeenetik ari naiz. Putz!!

Euri tanta potoloak hasi dira. Ekaitzak margoaren koloreak difuminatuko ditu hemendik gutxira. Arintzen ditut pausoak, orain takoiak soberan nituzke, ez berriz aterkia. Impassearen bizitza laburra.

josune velez de mendizabal

...lokartuz



edpita samz

L oak hartu nau. Hodeien leuntasunarekin egiten dut amets, suabe-suabe. Irribarrea antzematen dut ene aurpegian. Urrats bat, bi eta hiru eman ditut nire munduan. Polita da ikusten dudana. Pena iratzartzeak dakarren putzu beltza. Nire begiek orain dakusatena betiko balitz... Ez dut nire burua engainatu nahi. Begiak irekiko ditut. Ezin dut, ezin dut. Dagoeneko begiak irekita baititut. Iratzarrita nago. Hazi.

josune veleiz de
mendizabal

MAITANE. GASTEIZ 2003-4-23

4 astelehena

18:00 ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZAN
ZELEDONEN JAITSIERA.
19:15 UDALETXEA, ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA
UDAL SEGIZIOA BEZPERETARA JOATEA,
19:00 SANTA BARBARA PLAZAN
GUARDIAKO txaranga.
AMARIKA PLAZAN
LANTZIEGOKO txaranga.
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: ANTARA orkestra.
20:30 AIHOTZ PLAZAN
DANTZA PLAZAN
22:00 ERDIALDEKO KALEETAN
FAROLEN PROZESIOA A
22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA (profesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN
1. SU ARTIFIZIALAK: FIRE-
WORKS COLONELLI (Nepi,
Italia).
PRINCIPAL ANTZOKIAN "EL
ZORRO"
23:00 - 3:00 ERDIALDEAN ETA
ALDE ZAHARREAN Musika kalean
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZESENSUZKO
24:00 FORU PLAZAN
GUERRILLA GORILA / AMARAL.
ARKA PLAZAN VERTIGO orkestra.
AIHOTZ PLAZAN
MIKEL URDANGARIN.
UNIBERTSITATEEN ESPARRUA
Kontzertua: BANDA BASOTTI
00:30 ESPAINIA PLAZAN INDIANA.
2:00 TXOSNETAN SORKUN.

5 asteartea

07:00 ERDI AROKO HIRIGUNEAN ETA
ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZAN
EGUNSENTIKO PROZESIOA eta
ARROSARIOA
09:00 ESPAINIA PLAZAN
BANDA ETA TXARANGEN DEIA
10:00 FORU PLAZAN
BOLOAK, erakustaldia.
10:30 SAN MIGEL ELIZAN
GOTZAIN-MEZA
SANTA LUZIA ETA ARANA AUZOETAN
ANTZIEGOKO txaranga.
11:00 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, BINAKA (zale-
tuak).
ZEZEN-PLAZAN Bigantxak.
11:30 - 15:00 FLORIDA PARKEAN
Gastronomia eta herri artisautza.
12:00 ESPAINIA PLAZATIK ABIATUTA

ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI
ETA TXOTEN konpartsa
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
TXIPILANDIA, Gargantua.
12:00 - 14:00 ERDIALDEAN ETA
ALDE ZAHARREAN GESALTZAKO
fanfarrea.
PRADO PARKEAN ABENTURA
LEKUA
12:30 AIHOTZ PLAZAN
ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA
ARKA PLAZAN
ERTZAINZAREN BANDA.
13:00 FLORIDA PARKEAN
DAL MUSIKA BANDA.
FORU PLAZAN HERRI KIROLAK
13:30 ARKA PLAZAN
Omenaldia ikurrinari.
AIHOTZ PLAZAN
Bertsolariak: Sebastián Lizaso,
Jon Maia, Zigor Enbeita eta Iñaki
Viñaspre. Gai jartzailea: Olatz
Perea.
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN
PLAZAN
Txotxongiloak: ROSA Mª MARTI-
NEZ, (euskaraz).
17:00 ZEZENETARA JOATEA.
Espainia plazatik
17:00 - 20:30 PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
18:00 ZEZEN-PLAZAN
ABONUKO LEHEN ZEZENKETA.
PRADO PARKEAN
Haurrentzako antzerkia: DETRA-
KA, "Txikiglub" gaztelaniz).
PROBINTZIA PLAZAN
Jotak: LA RIBERA CANTA.
18:00 - 20:00
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
Gargantua.
18:30 POSTA PLAZAN
LANTZIEGOKO txaranga.
ERDIALDEAN ETA ALDE ZAHARREAN
GESALTZAKO fanfarrea.
19:00 SENDA IBILBIDEAN
GUARDIAKO txaranga.
AMARIKA PLAZAN
Folk zeltiarra: TRIQUEL taldea.
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: AKARY orkestra.
19:30 AIHOTZ PLAZAN
Txistularien kontzertua
20:00 ETA **23:00** PRINCIPAL ANTZO-
KIAN "EL ZORRO"
20:00 JARDÍN DE FALERINA-N
Folk musika: ADUNIA FOLK.
20:30 ZEZENETATIK ITZULTZEA.
AIHOTZ PLAZAN DANTZA PLAZAN

22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, Aprofesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN
2. SU
ARTIFIZIALAK: PEÑARROJA
PRINCIPAL ANTZOKIAN "EL
ZORRO"
PROBINTZIA PLAZAN
Umore eta fantasia gaua: JUAN
Y MIGUEL eta FLIP-FLAP.
23:00 - 3:00
ERDIALDEAN ETA ALDE ZAHARREAN
EZBERDINAK eta KIRRINKA.
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZESENSUZKO
24:00 FORU PLAZAN
OSKORRI eta KEPA JUNKERA.
ARKA PLAZAN NIAGARA orkestra.
AIHOTZ PLAZAN SANT PAU 44.
UNIBERTSITATEEN ESPARRUA
BETAGARRI.
00:30 ESPAINIA PLAZAN BELISSI-
MA
2:00 TXOSNETAN POTATO.

6 asteazkena

10:00 FORU PLAZAN BOLOAK.
11:00 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, BINAKA. zale-
tuak).
ZEZEN-PLAZAN Bigantxak.
11:30 - 15:00 FLORIDA PARKEAN
Gastronomia eta herri artisautza.
12:00 ESPAINIA PLAZAN
BANDA ETA TXARANGEN DEIA
ABETXUKO AUZOAN
LANTZIEGOKO txaranga.
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
Haurrentzako dosteta: DETRAKA
taldea, (euskaraz). Gargantua.
12:00 - 14:00
PRADO PARKEAN ABENTURA LEKUA
2:30 ARKA PLAZAN
ERTZAINZAREN BANDA.
SAN BIZENTE ELIZAN
GURIDI BRASS QUINTET.
AIHOTZ PLAZAN
TRIKITIXA ELKARTEA.
BABESGABETUEN AUZOAN
GUARDIAKO txaranga.
13:00 FORU PLAZAN HERRI KIRO-
LAK
FLORIDA PARKEAN UDAL MUSIKA
13:30 PROBINTZIA PLAZAN
COLLA JOVE DE CASTELLERS.
AIHOTZ PLAZAN
Bertsolariak: Maialen Lujanbio,
Iñigo Izagirre, Ruben Sanchez

eta Juan Mari Juaristi. Gai jartz.:
Nágore Soroa.
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
Txotxongiloak: TRAPALANDA
14:00 ERDIALDEAN
Kalejira gaitajole banda
17:00 ZEZENETARA JOATEA.
Eduardo Dato eta Florida kalee-
tan barrena, zezen-plazara.
17:00 - 20:30 PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
18:00 ZEZEN-PLAZAN
ABONUKO 2. ZEZENKETA.
PRADO PARKEAN Haurrentzako
antzerkia: KUKUBILTZO
PROBINTZIA PLAZAN
Jotak: ESTAMPA BATURRA.
18:00 - 20:00 PEÑAFLORIDAKO
K. PLAZAN
Gargantua.
OINEZKOEN ALDERDIAN
Kalejira gaitajole bandak.
18:30 SEFARAD PLAZAN
(JUDIMENDI)
LANTZIEGOKO txaranga.
ERDIALDEAN ETA ALDE ZAHARREAN
GESALTZAKO fanfarrea.
19:00 AMARIKA PLAZAN
Musika afrikarra: KORA taldea
SEND A IBILBIDEAN
GUARDIAKO txaranga.
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: TEKILA orkestra.
19:30 AIHOTZ PLAZAN
DONOSTIAKO ESKOLA DAN-
TZA.
20:00 ETA **23:00**
PRINCIPAL ANTZOKIAN "Se quieren"
20:00 JARDÍN DE FALERINA-N
Fussion musika (ahotsak).
20:30 ZEZENETATIK ITZULTZEA.
AIHOTZ PLAZAN DANTZA PLAZAN
22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, (profesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN
3. SU ARTIFIZIALAK
PRINCIPAL ANTZOKIAN "Se quieren"
PROBINTZIA PLAZAN IVA POR
USTEDESÍ.
23:00 - 3:00 ERDIALDEAN ETA
ALDE ZAHARREAN Musika kalean
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZESENSUZKO
24:00 FORU PLAZAN CAMELA.
AIHOTZ PLAZAN GOZATEGI.
UNIBERTSITATEEN ESPARRUA
Kontzertua: RADIO RAHEEM
00:30 ESPAINIA PLAZAN
TRAVIATTA orkestra.
ARKA PLAZAN

JOSELU ANAIK, OKERRAK.
2:00 TXOSNETAN OS DIPLOMATI-
COS.

7 osteguna

10:00 FORU PLAZAN BOLOAK.
10:30 A. MARIA ZURIAREN PLAZAN
"Zure IX. argazkia, Bereziak"
11:00 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, BINAKA.
ZEZEN-PLAZAN Bigantxak.
SAN MIGEL ELIZAN
Blusa txikien ospakizuna
11:30 A. MARIA ZURIAREN IRUDIAN
OHOREZKO AURRESKUA,
Zeledon Txikik eta Neska Txikik
11:30 - 15:00 FLORIDA PARKEAN
Gastronomia eta herri artisautza.
12:00 ESPAINIA PLAZAN
ZELEDON TXIKIREN JAITSIERA
12:00 - 14:00 ARANA AUZOAN
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
12:30 PEÑAFLORIDAKO K. PLAZAN
Haurrentzako dosteta: ARTURE-
LLO DI POPOLO, gargantua.
SAN BIZENTE ELIZAN
CAMERATA GASTEIZ.
ARKA PLAZAN
ELTZIEGOKO SANTA ZEZILIA.
BASTITURRI KALEAN
XIII. GANBA JANA: "GASTEIZTA-
RRAK".
AIHOTZ PLAZAN
ARABAKO TRIKITIXA ELKAR-
TEA.
13:00 FLORIDA PARKEAN
GASTEIZKO UDAL BANDA
FORU PLAZAN HERRI KIROLAK,
13:30 AIHOTZ PLAZAN
Bertsolariak: Xavier Silveira, Igor
Elortza, Oihane Perea eta Alberto
Martinez. Gai jartzailea: Amaia
Altube.
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
Txotxongiloak: KIXKA
taldea,eusk
17:00 ZEZENETARA JOATEA.
17:00 - 20:30 PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
17:30 ESPAINIA PLAZATIK PRADORA.
Blusa txikiak jaira joatea
18:00 PRADO PARKEAN
Haurrentzako antzerkia: DESAS-
TROSUS CIRCUS Gargantua.
ZEZEN-PLAZAN

HIRUGARREN ZEZENKETA.
PROBINTZIA PLAZAN
Jotak: VOCES DEL EBRO.
18:30 ARANA AUZOAN
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
19:00 AMARIKA PLAZAN
Reggae jamaikarra: ESKALESTRI
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: IRATXO orkestra.
19:30 AIHOTZ PLAZAN
ELTZIEGOKO GAITAJOLEAK
&FRIENDS.
20:00 ETA 23:00
PRINCIPAL ANTZOKIAN "Se quieren"
20:00 JARDÍN DE FALERINA-N
Jazza: KEBAB.
PRADO PARKETIK ESPAINIA PLAZARA
Blusa txikien itzulera.
20:30 ZEZENETATIK ITZULTZEA.
AIHOTZ PLAZAN DANTZA PLAZAN
22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, (profesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN
4. SU ARTIFIZIALAK: XARAIVA
PRINCIPAL ANTZOKIAN "Se quieren"
PROBINTZIA PLAZAN
Errebista: C. Dubal, "RISAS MIL
CON MANOLO DE VEGA"
23:00 - 3:00 ERDIALDEAN ETA
ALDE ZAHARREAN Musika kalean
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZEZENSUZKO.
24:00 FORU PLAZAN
LA CABRA MECANICA.
ARKA PLAZAN MAMBA NEGRA .
AIHOTZ PLAZAN BIDAIA.
UNIBERTSITATEEN ESPARRUA DR.
CALYPSO
00:30 ESPAINIA PLAZAN
MONTESBLANCOS orkestra.
2:00 TXOSNETAN
NEUBAT + ESCORZO

8 ostirala

09:00 SAN MIGEL ELIZAN
Blusa beterranoak
10:00 ESPAINIA PLAZAN
BANDA ETA TXARANGEN DEIA
FORU PLAZAN BOLOAK.
10:30 ESPAINIA PLAZAN
LEHIAKETA GASTRONOMIKOA
("Bereziak").
11:00 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, BINAKA.(zale-
tuak).
ZEZEN-PLAZAN Bigantxak.
11:30 - 15:00 FLORIDA PARKEAN

Gastronomia eta herri artisautza
12:00 PEÑAFLORIDAKO K. PLAZAN
Haurrentzako dosteta: ZANIMA
taldea, (gaztelaniaz). Gargantua.
12:00 - 14:00 SAN MARTIN AUZO-
AN
GESALTZAko fanfarrea.
PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
12:30 SAN BIZENTE ELIZAN
CUARTETO GURIDI.
AIHOTZ PLAZAN FOLKLORE AKA-
DEMIAKO TRIKITILARIK
ARKA PLAZAN
AGURAINGO MUSIKA BANDA.
PROBINTZIA PLAZAN
Beteranoentzako VIII. Dantza
Lehiaketa. "El meneito veterano",
"Nekazariak".
12:30 - 14:30 POSTA PLAZAN
"Piztiak" eskalakekua
13:00 FLORIDA PARKEAN
UDAL MUSIKA BANDA
FORU PLAZAN HERRI KIROLAK
13:30 AIHOTZ PLAZAN
Bertsolariak: Asier Otamendi,
Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta
Irati Anda. Gai jartzailea: Naroa
Sasieta
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
Txotxongiloak: TOPO SECRETO,
17:00 ZEZENETARA JOATEA.
17:00 - 20:30 PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
18:00 PRADO PARKEAN
Haurrentzako antzerkia: GOLO-
KA
PROBINTZIA PLAZAN G. EL PILAR.
ZEZEN-PLAZAN 4. ZEZENKETA.
18:00 - 20:00 PEÑAFLORIDAKO
KONDEAREN PLAZAN Gargantua.
18:30 - 20:30 POSTA PLAZAN
"Piztiak" eskalakekua
19:00 AMARIKA PLAZAN
Tex-mex: LOS CHIHUAHUA.
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: EKLIPSE orkestra.
19:30 AIHOTZ PLAZAN
Arabako IX. Trikitilari Txapelketa
eta Arabako Haur Trikitilarien VII.
20:00/23:00 PRINCIPAL ANTZOKIAN
"Yo me bajo en la próxima, ¿y usted?"
20:00 JARDÍN DE FALERINA-N
Euskal pop-a: MIKEL ERRAZKIN.
20:30 ZEZENETATIK ITZULTZEA.
AIHOTZ PLAZAN DANTZA PLAZAN:
22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, (profesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN

5. SU ARTIFIZIALAK: CABALLER
PRINCIPAL ANTZOKIAN
"Yo me bajo en la próxima, ¿y usted?"
PROBINTZIA PLAZAN
Umorea: "Por fin es fiesta".
23:00 - 3:00 ERDIALDEAN ETA
ALDE ZAHARREAN Musika kalean
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZEZENSUZKO
24:00 FORU PLAZAN
ROCIO DURCAL Y MARIACHIS.
ARKA PLAZAN DENIS BAND .
AIHOTZ PLAZAN XABIER MON-
TOIA.
UNIBERTSITATEEN ESPARRUA
Kontzertua:
00:30 ESPAINIA PLAZAN
MONTESBLANCOS orkestra.
2:00 TXOSNETAN
Kontzertua: ESCORZO.

9 larunbata

10:00 FORU PLAZAN
BOLOAK, erakustaldia.
11:00 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, BINAKA. (zale-
tuak).
ZEZEN-PLAZAN Bigantxak.
12:00 ESPAINIA PLAZAN
konpartsa
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLA-
ZAN
MAGO SUM eta ELVI EL VEN-
TRILOCUO (euskaraz).
Gargantua.
12:00-14:00 TXAGORRITXU AUZOAN
GESALTZAko fanfarrea.
ZARAMAGA ETA PILAR AUZOETAN
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
12:30 SAN BIZENTE ELIZAN
Musika klasikoa: CAMERATA
GASTEIZ. AIHOTZ PLAZAN
ARABAKO TRIKITIXA ELKAR-
TEA.
ARKA PLAZAN
ARAIKAKO MUSIKA BANDA.
13:00 FORU PLAZAN
HERRI KIROLAK, erakustaldia.
FLORIDA PARKEAN
GASTEIZKO UDAL MUSIKA
BANDAREN emanaldia.
13:30 AIHOTZ PLAZAN
Bertsolariak: Andoni Egaña,
Manex Agirre, Iñaki Gurrutxaga
eta Ricardo Gonzalez de Durana.
Gai jartzailea: Irati Lotina

PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLAZAN
Txotxongiloak: BEHI BI'S taldea,
"Makmuak" (euskaraz)
17:00 ZEZENETARA JOATEA.
17:00 - 20:30 PRADO PARKEAN
ABENTURA LEKUA
18:00 PRADO PARKEAN
Haurrentzako antzerkia: MAIMUR
TEATROA taldea, "El camino de
las estrellas" (gaztelaniaz).
ZEZEN-PLAZAN
ABONUKO 5. ZEZENKETA.
PROBINTZIA PLAZAN
Jotak: RAICES NORTEÑAS.
18:00 - 20:00

PEÑAFLORIDAKO K.PLAZAN
Gargantua.
19:00 FORU PLAZAN
Sagardotan eginiko LUKAINKA
DASTATZEA.
POSTA PLAZAN
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
AMARIKA PLAZAN
EL PETRIL DE MI PUEBLO tal-
dea.
19:00 - 22:00 FLORIDA PARKEAN
Dantzaldia: ATALAIA orkestra.
19:30 AIHOTZ PLAZAN
Dantza plazan, Gasteizko Udal
Folklore Akademiarekin.

20:00 PRINCIPAL ANTZOKIAN
"Yo me bajo en la próxima, ¿y
usted?"
JARDIN DE FALERINA-N
Country/ pop-rocka: LA MILLA
TRECE.
20:30 ZEZENETATIK ITZULTZEA.
AIHOTZ PLAZAN DANTZA PLAZAN
22:45 OGETA PILOTALEKUAN
ESKU PILOTA, (profesionalak).
23:00 MENDIZABALEAN
6. SU ARTIFIZIALAK: IGUAL
piroteknia (Bartzelona).
PROBINTZIA PLAZAN
Umorea eta beste: Universo,

"ARRASANDO CON
DECADANCE".
23:00 - 3:00 ESPAÑA PLAZAN
COSTA DE VALENCIA orkestra.
23:30 OLAGIBEL KALEAN
HAMABI ZEZENSUZKO
24:00
TXOSNETAN
Ezusteko Taldea.
01:00
ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZAN
JAI BUKAERA: ZELEDON AGUR-
TU ETA IGOTZEA. AZKEN
TRAKA, VALECEA pirotekniaren
eskutik.



Txosnak 2003

Astlehena 4

24:00 - BANDA BASSOTTI
1:30 - SORKUN

Osteguna 7

24:00 - GATIBU
1:30 - IDI BIHOTZ

Asteartea 5

24:00 - BETAGARRI
1:30 - POTATO

Ostirala 8

24:00 - DOCTOR CALIPSO
1:30 - ESKORZO
3:00 - NEUBAT

Asteazkena 6

24:00 - RADIO RAHEEM
1:30 - OS DIPLOMÁTICOS

Larunbata 9

1:00 - SILENCIO ABSOLUTO
2:30 - TIJUANA

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

ARRAIA
TABERNA
Eguraldiak, astrolaguntza, txotxak
JANTOKI
VEGETARIANOA
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

SARTU
Zure arropa eta oinetakoa
www.sartuenda.com
Kubillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

ITYRRIETA
Sagardotegia
uda garaian egunero irekita
Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OHIKO ESKAINTZAZ
GAIN, ORAIN
BOKATAK ETA
PLATER KONBINATUAK
ERE BAI!!

IRVSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

DEBAKO ARTE ESKOLA: ARTISAU BERRIENTZAKO TXOKOA



“Irudimena askatu, ideiak garatu eta artisau tekniketan profesionalak prestatu”. Horixe da Debako Arte Eskolaren helburu nagusia, betidanik Euskal Herrian izan diren ofizioak irakastea. 1981ean jaio zen eskulangintzarako irakaskuntza zentro hau, Jorge Oteizak 1969an sortutako Debako Eskolaren ideiatik abiatuta eta euskal kulturako hainbat pertsonak bultzatuta. Egun, artisautzaren aldaera desberdinak lantzeko Espainiako Estatuan dagoen eskola bakarrenetarikoa da, eta bertatik egurra, harria, zeramika edota brontzea ederki asko lantzen dakiten profesionalak atera dira.

Ez da harritzekoa, gainera, hala izatea. Izan ere, Debako Arte Eskolak darabilen hekuntza sistema Europako herrialde desberdinetako arte zentroetatik hartu du, Euskal Herriko gizartearen eta hezkuntzaren errealitatera egokituz. Plastikarekiko interesa duten pertsonak zabalik dagoen eskola da, askatasun estetiko eta formakuntza tekniko garatzeko aukera ematen duena.

la urte osoan zabalik ditu ateak Debako Arte Eskolak, eta bertan izena emateko baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da. Halaxe azaldu digu Mikel Campo eskolako zuzendariak. Urtean bi eskaintza daudela kontatu digu: bata, udako ikastaroa da (uztailean) eta bestea, urritik ekainera bitarteko kurtsoa. Iragan hileko 24an amaitu ziren udako ikastaroak, arrakasta handiz, urtero bezala. Mikelek azaldu digunez, kanpoko jende askok parte hartu zuen (Valladolid, Galizia, Hueskakoak...) sei tailerretan banatuta (*Kalkografiatzko grabatuen hastapenak; Egurra lantzeko tailer irekia; Brontze galdaketa modu artistikoan; Marmolezko eskultura; Zeramikaren hastapenak eta Marrazki eta pintura tailerra*). Hala ere, nabarmentzen du arrakasta handiena duen tailerra Brontzearena dela, ez baita Estatuko beste inon irakasten. Hori dela eta, aurten jende asko kanpoan geratu dela diosku Mikelek.

Urte osoko eskaintzari dagokionez, berriz, helburu jakin bat dagoela azaldu digu: “Artean, artisautzan edo arte munduan dabilzanak profesionalak egitea”. Azken batean eskolaren eginkizun nagusia da edozein materialen lanketa ongi ikastea, hortik aurrera norberak gustuko duen bidea hauta dezan: dela tailer bat muntatzeko, dela enpresa txiki bat... “Eskola irteera polita da ofizio bat izateko, eta gero bakoitza arte munduan sartzeko”, diosku Mikelek.



Hartara, artearen munduan murgildu eta teknika guztiak ikasi nahi dituenak Debaiko Arte Eskolan du aukera paregabea. Informazio gehiago nahi izatekotan deitu **943191804 / 943192112** telefono zenbakira. Ikasturtea urritik ekainera bitartean da, goizeko 9.00etatik 14.30etara (astelehenetik ostiralera). www.euskalnet.net/deba

TEKNIKA GUZTIAK AUKERAN

HAUETXEK DIRA DEBAIKO ARTE ESKOLAK URTEAN ZEHAR ESKAINTZEN DITUEN IKASGAIAK:

Harlanketa eta zurlanketa

Harlanketa eta zurlanketako lantegiek bitarteko ikasgai zeregina dute, hau da, ikasleak, bere hezkuntza aurrera joan ahala, bietako bat aukeratzen du oinarritzko espezialitate bezala. Material biguneko maketekin hasi (buztina, igeltsua, etab.) eta pixkana irudi eta material zailagoetara pasako; hala, haritza, kararria, marmola... lantzen dituzte.

Brontze galdaketa artistikoa

Ikasgela hauetan irakasten den jarduera "argizari galdua" da, buztinez inguratutako moldeak erabiliz. Egungo teknologia darabilte horretarako eta honako atal hauetan banatzen da: moldaketa, zeramikaztua, fusio eta iragazketa, eta patina eta bukaera. Ikasgai honen egitekorik garrantzitsuenak hauxe da: eskuzko eragiketen bidez, industria edo beste zenbait arlotan erabil daitezkeen metodoak irakatsi eta profesionalak egitea.



Grabaketa kalkografikoa


Gela hau grabaketa kalkografikoa, xilografia eta estanzazioa irakasteko prestatuta dago. Grabaketa lantegietan antzinako teknikak jarraitzen dira eta grabatzaileek, beraiek sortu eta plantxan jarritako irudiak estanzatzen dituzte, bakoitzak bere erara. Ezagutzen ditugun grabaketa era desberdinak irakasten dituzte gela honetan: punta lehorra, xixela, akuaforte, urtinta, marea beltza edo "mezzotinta", azukre erara, eta abar. Aldi berean, estanzatzeko era guztiak ere lantzen dira, kolore batekoak nahiz askotakoak eta plantxa bakarrean zein askotan.

Zeramika

Lantegi hau honako sailetan banatzen da: buztina ohiko espezialitateetan moldatzea, tornatua edo bertornatua (buztingintza saila); oinarritzko osagaiak hartuz, geruza beiratuak prestatzea; piezak eta ontzi beiratuak labean sartzea, elektrikoa nahiz gasduna.

Aukerako ikasgaiak

Aipatu ikasgaiez gainera, eskolaren plangintza orokorraren barnean badira aukeran dauden gaiak: Forma eta kolorea eta Artearen Historia. Ikasgai hauek sartzean (kontuan hartzekoa da Artearen Historia nahitaezkoa dela) ikasleari aukera gehiago eskaintzen zaiolakoan daude irakasleak.



TUNISIA,

OSO MEDITERRANEOA

Soilik hiru egun emango ditut Siziliako hiriburuan, Trapanira heldu nahi dudalako, osteguneko itsasontzia hartzeko. Geltokiaren alboko azokari bisita bat egitea nahikoa da bertan bizi diren arrazen nahasketaz jabetzeko: beltzak eta asiarrak, azal txuri eta begi urdinak dituzten jendeekin batera, eta beste asko, mairutar azalekoak.

Arrain handiak, mota guztietako fruituak, keztatuak, santuak eta aldareak, uneko musika aireratzten duten motogurdiak, kolore anizteta bonbilekin apaindutako elizak, salgai dauzkaten produktuen bikaintasunak abesten dituzten ahots baritonoak.

Trenak, itsasora erortzen diren mendi lehorrez inguratutako badiak inguratzen ditu berriro, eta bat-batean haizeak begiak lehortzen dizkizula ohartzen zara, paisajea lur idorretako txatal eta zelai landatu bilakatu dela, palmondo bakartietako itzaletan dauden artaldeek eta mahatsondo ilarek begiak freskatzten dizkizutela.

Lur bameko Siziliaren zertzelada bat baino ez, beste une baterako aipu bat baino ez, Trapanira jaisten baikaude, Genoa, Marseilla, eta nola ez, Tunisiara abiatzen diren ontzien irteera-portuetara.

la bidaiari gehienak etorkin tunisiarrak dira, beren lurraldean oporrak igarotzen dituzten familiak, merkataritza txikitik bizi diren gizonezkoak... eta tira, 8 orduko bidaia batean itsaso lasai eta urdin ilun baten gainean elkarrekin egongo diren turista zenbait.

Aire diferente bat samatzen da, formetan ez hain "musulmana": gizonezkoek disimulurik gabe alkohola edaten dute, emakumezkoek ilea solte eta sorbaldak agerian daramatzate, eta haurrek korrika egiten dute eta jostailu argidunekin jostatzen dira; nahiz eta bazkaldu ostean, askok ontziaren moketa baliatzen dute lo kuluska bat elkarrekin egiteko.

Ez da samurra ezagutzen ez duzun herrialde batera gauzez heltzea, are eta gehiago hiriburu bada: dirua aldatzea, taxistak (baten bat baldin badago) egoeraz aprobetxatzea saihestea, zure aukeren arabera hotel egokia aukeratzea...

Oro har hasberria izatea garesti irteten da.

Biharamunean, goizeko argiarekin, gauzak desberdin ikusten dira, lasaia hartzen da arnasa eta orduantxe herrialdeaz gozatzeko parada izaten da.

Tunisia hiri zaratsua da, kale nahiko zabalak ditu, espaloietan zuhaitzak ditu, kafe zaharrak daude goxotegi modernoan ondoan, banku handiak ditu, zapata-garbitzaileak, tranbiak... eta hiribide bat, Bourghiba hiribidea, hiriburuaren kale nagusia. Bertako lore postu ugariak hiri modernoa apaintzen dute.

Medina, urdina eta zuria, ahaztutako atearen atzean irekitzen da: Babbar. Bakartia eta itxia, alferrikakoa, itsasora begira. Kaletxo estuak arropaz gainezka daude, zapatak, keramikak, antigoaleko gauzak, usainak... eta denda txikiak ateratzen den musikarainoko bidean laguntzen zaitu, goialdean, Alatik gertuago.

Iluntzean, kafeak gazte lepo daude, dominora jostatzen diren zaharrez, hitz egiten eta barre egiten duten gizonez, jendea aurretik nola igarotzen den begiratzen duten gizonez. Orduantxe hasten dira muezinaren garrasiak, eguzkiak eguna uzten duen unean bertan.

Gauzez medina aldatzen da, medina bilakatzen da dendeak ateak itxi egiten dituztelako, lehen beren edertasuna erakusten zuten objektuak gordez. Patina zaharreko harlauza handiek distira egiten dute gastatutako bonbila batzuen itzalera.

Harresitik kanpo oraindik "xixa" usaina dago, tabernariak kafe zaharretako patioetan etengabe pizten dituzten argien zarata entzuten da. Gizonek, guztiak dira gizonak, pipa ahotan dute eta jazmin lurrinsu sorta bat belarrian.

Hiri zaharrak amesteari ekiten dio, ezkontza bat gehiago iragartzen duten kotxeetako klaxonek geldiarazita; "mundu guztia" udan ezkontzen da.

Bourghiba hiribidea ez du oraindik atsedetik hartu nahi, eta familiak igarotzen ikusten ditu, gazte taldeak, astiro doan tranbia berdeari bi neskak deskapotagarri horren atzealdean itxaroten dioten bitartean, galdutako katu batek Trotamundos gidak aholkatutako hotel baten marmolezko eskailerak igotzen alocamendu bila..., eta jazmina saltzen dagoen traje zuri, txano gorri eta begi urdin handidun ume batek bere irribarra oparitzen du.

Siziliara "IL GATORPARDO" Espresen helduko gara, Erromatik irten eta Napoleseko bidea hartuta S^a Giovanira heltzen baita, non ferryak irentsiko duen. Minutu batzuk geroago ferryak irla horretan utziko gaitu, europarra baino afrikar zaporea, usaina eta kolorea duen irlan.

Trena Messinatik ihesi doa, itsasoaren beldur bailitzan, eta tunel eta mendisken artean murgiltzen da. Olibondo berdeen gainean eguzki zuri batek eguna esnatzen du, eta itsasoak, zilarrezko azpil horrek, berriro ere, Palermoraino lagunduko gaitu.

ARROZ ESNEZKO MOUSSEA GIRLATXEZKO BISKUITAREKIN

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Esnea litro bat
Arroza 80 g.
Azukrea 150 g.
Laranja azal birrindua
Kanela zotza

Arrain isatsak 2 u.
Esnegain erdi harrotua 25 cl.

BISKUITA EGITEKO

- Osagaiak
- Goringoak 16 u.
- Azukrea 300 g.
- Ura 1 dl.
- Esnegain erdi harrotua litro 1
- Girlatxea

NOLA EGIN

- Girlatxea ahal beste birrindu eta alboan utzi.

- Arrautza gorringoak Maria bainuan harrotu hasierako bolumena hirukoiztu arte, almibarra egiten den bitartean.

- Azukrea, ura eta limoi ur tanta batzuk nahastuz almibarra egin, harizpi fin baten modura erortzen den arte.

- Maria bainutik kendu gorringoen nahasketa, bolumena hirukoiztu ondoren.

- Harrotutako gorringoei oso zorrotada finetan eta eragiteari utzi gabe almibar egin berria erantsi.

- Irabiatzen jarraitu, hoztu arte.

- Girlatxea nahastu lehenengo eta, ondoren, esnegaina. Izozkailuan sartu, -18 °C-ra.



NOLA EGIN

- Arroza ur irakinetan egin.
- Esnea egosten jarri, laranja azal birrinduekin eta kanela zotzarekin batera. Irakiten hasten denean biak kendu.
- Arroza erantsi eta mugitu. Poliki-poliki egosten utzi su txikian 30 minutuz.
- Azukrea erantsi eta irakinaldi bat eman.
- Txanotik pasatu eta, arrain isatsak hidratatu eta lehortu ondoren, arroz esnea loditu.
- Epeltzen denean, esnegain erdi harrotua erantsi eta moussea mahuka batean sartu. Mahukari kizkurtzeko ahoko zabala ezarri.

NOLA AURKEZTU

- Laranjazko gaileten geruzak eta arroz esneko moussearenak txandakatu, eta gain-gaineko geruzan moussea ezarri, gainetik kanela hautsa botaz.
- Bete txokolatzeko tartaleta bat biskuitarekin.
- Laranja saltsa eta almendra krokantea erantsi.

(itzulpena: aztiri)

	Emea gu-rasoeikiko	A	Musika tresna		Eder iritzi		Gure herri-aldekoa		Neka, una
	Elikatzea		Egona		Aluminioa		Oinarrizko edari		
	Pl., azal baten neurria	E	L	I	K	A	D	U	R
	Kontinente bat	A	Z	A	L	E	R	A	K
Pertsonaia	Adar	A	B	A	R	R	B	I	
Aleman	Zeharo								
		A	L	E	M	A	N	I	A
Areago									
Gerizpe		A	R	E		K			A
		B	A	R	O				
Oinez aurreratu									
Pl., urtaro beroa		I	B	I	L	I	A	S	T
		U	D	A	K				
Nafarroako udalerrria		E	T	A	I				

Hitz Gezidunak

***IRUDIA:**
Autore euskaldunberria, ezaguna batez ere Bibliaren itzulpenagatik. Euskaltzain osoa izan zen. Plaza zaharreko (gaur Andre Maria Zuriaren plaza) 6 zenbakian jaio zen 1869ko martxoaren 15ean, eta 1942an hil Toulouseen kotxe batek harrapatua. Kultura aldeanitzekoa, inork bezala ezagutuko du euskara, Salamancan zegoela ikasia.

Soluzioa: 33. orrialdean

udako liburua



Barrikadak

Patxi Zubizarreta

Alberdania-2003

Salneurria: 11 euro

"bizitza espres honen antzekoa izan daiteke: batzuetan gaurkoa bezalako paisaia liluragarriak zeharkatzen ditu, eta bestetuetan ingurune basatiak, edo gerran dauden lurraldeak..."

Bost pertsonaia, bost bizitza, bost kontakizun: bost ikuspuntu egoeraz hobeto jabetzeko. Bost bagoi, liburu hau den tren espresari maisuki lotuak. Norabide argia: irakurlearengan lilura piztea. Eta galderak: hogei urte eta gero, sufrimenduak hor dirau, zer aldatu da?, onerako?, txarrerako?

80ko urteetan kokatua dago istorioa, bakardadea are bakardeago egiten duten Gabonetan. Barrikada bat dago Ordizian, espresaren bidean traban. Gauza ikusgarria da pneumatiko errez eta era guztietako tramankuluz egindako barrikada. Ikusteko modukoa. Kontakizunean aurreratu ahala, beste barrikada batzuk bistaratuko dizkigu Zubizarretak, Antton Olariagaren irudizko narrazioa lagun duela, bere irudimenetik sortutako pertsonaien baitan. Eta irakurleon baitan?

Patxi Zubizarretak Barrikadak izeneko kontakizun honekin irabazi zuen Ignacio Aldekoa Saria, 2002an.

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

• **Ordutegi guztiak**

Maria. 656745969

Miryam. 656761588

Amaia. 635742429

Ainhoa. 653732694

• **Arratsaldeak**

Patxi. 652743205


• **Gauak**

Nerea. 658733934


• **Asteburuak**

Nagore. 945281124

Marta. 606415235



Errioxa arabarrak jai zoriontsuak opa dizkizue



Eskuernaga - Villabuena (ARABA)

euskara
añanan
mingainean

Zanbrana

2003
Irailaren
14
Septiembre



Añanako Eskualdeko
Euskararen aldeko
VIII. Jaia



VIII Fiesta
por el Euskara de
la Cuadrilla de Añana

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Zanbranako Udala
Ayuntamiento
de Zanbrana

MINTZALAGUNA ZABALDUZ: euskaraz mintzatzeko, jende berria ezagutzeko, ondo pasatzeko. Zenbat eta lagun gehiago orduan eta aukera gehiago. Aurten talde bat osatu da baina datorren ikasturterako aukerak zabaldu nahian interesa duzuenentzat honako fitxa hau prestatu dugu. Bete eta bidali lehen bai lehen. Zuen erantzunen arabera irailan osatuko ditugu taldeak.

***DATU OROKORRAK.**

Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Auzoa:.....
Herria:.....
Telefonia:.....

Adina:.....
Jaioteguna:.....
Ikasketak:.....
Lana:.....

*Euskara maila: (euskaltegian ibiltzen bazara zehaztu urratsa)

Zeinekin egiten duzu euskaraz? Etxean: bai /ez
Lagunekin: bai/ez
Lanean: bai/ez
Besterik.....

*Koadro honen arabera bete mintzalagunarekin elkartzeko libre dauzkazun egunak eta orduak:

ORDUA	ASTEL	ASTEAR	ASTEAZ	OSTEGU	OSTIRA	LARUNB	IDANDE
9-10							
10-11							
11-12							
12-13							
13-14							
14-15							
15-16							
16-17							
17-18							
18-19							
19-20							
21-22							

**Lekua ere zehaztu (auzoa):.....